

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

L.G.: SS-0197/03

Emakumearen Nazioarteko Eguna Zizurkil2010

Zizurkilgo Euskara biziberritze plana 2009-2012



www.zizurkil.com

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

martxoa 2010 | 79. zenbakia | UDABERRIA



AISIALDIA, KIROLA, KULTURA, HEZKUNTZA, GAZTETXO ETA EUSKARA INGURUKO EKINTZA INTERESGARRIAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA:

Udalak 2010. urteko dirulaguntzak elkarteei emateko Deialdia kaleratu da eta eskaerak aurkezteko epea martxoaren 12an amaituko da.

Gazteria



mar. 13 **GAZTEENTZAKO ESKI IRTEERA**

Villabona eta Zizurkilgo Udalek antolatutako, 1990-1997 urte bitartean jaiotako gazteei zuzenduriko eski irteera Luz Ardidenera. Prezioa: 25 euro adin txikikoentzat eta 35 euro adinez nagusientzat. Izen emateak: Aurrera Plazako Udal Bulegoetan, hurrengoak ekarriz: - NA-ren fotokopia - Dirua (25 € adin-txikikoek eta 18 urtetik gorakoek 35€) - Baimen orria beteta eta gurasoek sinatuta.

GAZTEZULOKO EKINTZAK

mar. 26 Birziklatzeko materialekin eskulanak 17:00etatik aurrera. Gazte bakoitzak birziklagarriak diren materialak ekarri beharko ditu.

mar. 30 Altxorraren bila arituko dira Zizurkil Goian. 8-12 urteko gatzetxoei zuzendua, 11:00etatik aurrera. Zatoz, anima zaitetz!

Kirola

mar. 7 **VII. AIZTONDO KLASIKOA:**

Zizurkildik abiatu eta Asteasura iritsiko da.



Kultura



EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA:

mar. 6 **IRUNEKO** (Gipuzkoa) **OIASSO MUSEO ERROMATARRA** eta **SANTA ELENA ERMITA** ikustera irteera egingo da. Ondoren, bazkaria Hondarribiko Ardora Jatetxean. Izen emateak Aurrera Plazako Bulegoetan eta Liburutegian, plazak bete arte eta 28 euro ordainduz.

mar. 8 **ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**

Eskulanetan aritzen diren emakumeen ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA 19:30ean Atxulondo Kultur Etxean.

mar. 12 **DANTZA GARAIDIDEAREN EMANALDIA:**

Hiru koreografo gazte **IKER ARRUE**, **ANUSKA ALONSO** eta **IGOR CALONGE**. Atxulondo Kultur Etxean 20:30ean. Sarrera: 3€.

mar. 20 **EMAKUMEEI ZUZENDURIKO AUTODEFENTSA IKASTARO TRINKOA**

Maitena Monroyrekin Atxulondo Kultur Etxean. Orduetgia: goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. Ikastaroaren helburua: edozein adin eta ezaugarri fisikoetako emakumeei eraso baten aurrean erantzun egokia ematen erakustea. Prezioa: 35 euro (kopuru honen barnean sartuta dago egun horretako bazkaria).

KZ GUNEA:

Tutoritzak martxoaren 3 eta 17an egingo dira 16:00etatik 20:00etara.

BESTELAKOAK:

mar. 13 **TXAPEL EGUNA**

